

Rafael Escolaren eskola

Datorren Apirilaren 30ean,
“Rafael Escola” Etika Katedrako
ekitaldiak hasiko dira
Donostiako Ingeniarien Goi
Eskolan, Nafarroako
Unibertsitateak hiri honetan
duen zentroan

2004 Mar 30

Rafael Escola (Bartzelona, 1919 –
Bilbo, 1995) ingeniari, enpresari eta
bere laguntzaileen prestatzaile asper
gabea izan zen. Zenbait enpresa jarri
zituen martxan, haien artean IDOM

ingeniaritza eta eraikuntza taldea gailentzen delarik, gaur egun mila eta berrehun profesional ez osaturikoa.

Profesioari zion grina alde batetik eta gizonaren bokazio espiritual bestetik, bete-betean bat eginik aurkitzen ziren berarengan, horrela Opus Deiren mezua –1940etik kide zen– adierazten zuelarik. Nekerik ezagutzen ez zuen langile, bere ezagunen sustapen intelektual eta espiritualari begira bizi izan zen beti. Nabarmena zen zein gizarte maila desberdinetakoak ziren bere adiskideak.

Escolak ingeniari gazteen prestakuntzan jarri zuen gogo bizia, IDOMeko “Graduatuondoko eskola”-n agertu zen alde batetik, praktiketako programen bidez. Oso ezaguna izan zen Eskola hau Bilbon eta graduatu askori lagundu zion lana bilatzeko orduan. Eta beste

aldetik bere lanbide esperientzia igortzeko bide izan ziren argitalpen ugarietan. Horien artean azpimarra daitezke *Deontología para ingenieros* (1987), Nafarroako Unibertsitatearen Donostiako Ingeniarien Eskolan gai horri buruz emandako eskolen fruitu, *Cómo nace y se hace una empresa de ingeniería*, eta *El ejercicio de la profesión de ingeniero* (1989).

.....

pdf | document generated
automatically from [https://opusdei.org/
eu-es/article/rafael-escolaren-eskola/](https://opusdei.org/eu-es/article/rafael-escolaren-eskola/)
(2026 Mar 10)